

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Nafarroako Gobernuaren kultura egitaraua datorren asterako

Nafarroako Gobernuak proposamen berriak prestatu ditu urriaren batetik zazpira: kontzertuak, zinema, tailerrak, erakusketak eta bisitak

Astelehena, 2018.eko urriak 1

Aste honetan, musikarekin hasteko, badaude eskaintza gustagarriak aste honetan. Alde batetik, Baluarte Jauregian proposamen bikoitza izanen da: Sir Andrés Schiff piano-jole bikainaren kontzertua asteartean eta Nafarroako Orkestra Sinfonikoaren emanaldia ostiralean. Beste alde batetik, Organo Musika Nafarroan jaialdiak bi proposamen dakartza ere bai: Andres Cea Galán Lizarrako Santo Domingo Komentuan arituko da larunbatean. Igandean berriz, hitzordua Leyreko Monasterioan izanen da. Bertan, Pablo Márquez Caraballok "XIX. mendeko pianista onenak organoan eserita" kontzertua eskainiko du.



Nafarroako Organu zikloaren baitan Andres Cea Galenek errezitaldia eskainiko du.

Astero bezala, Nafarroako Filtrotekak zinema eskaintza dakar. Astelehean, "Bailando la vida" filma ikusteko aukera egonen da. Ostegunean, laburmetrailen txanda izanen da proiektio hirukoitzarekin: "El hálito de Eir", "Second Line" y "La boda de Eva". Bukatzeko, ostiralean "3.000 noches" filma eskainiko da.

Formakuntzari dagokionez, Nafarroakoa Liburutegian "Ongi etorri ipuinetara" tailerrean parte-hartzeko aukera berria zabalik da. Are gehiago, Lizarrako Karlismoaren Museoan irekirik darrai historiaren inguruan prestatu den Scape Room-a: "Escape room: El robo del Toisón". Bukatzeko, Huarten Zentroan, "Habitación: Barruko Landareak" proposamena mantentzen da. Halaber, Arte Gazteren 2018 Topaketa dela eta hiru formakuntza tailer zabalduko dira ostiral eta larunbatean.

Erakusketen eskaintzari begira, Oteiza Museoan "Macla, mamua, bismuto, vicario" proposamena bisita daiteke. Are gehiago, Landarte Egitaraua Sesma herritik igaroko da larunbat honetan "Ur tan bakar batekin" ekintza aurkezteko.

Azkenik, Nafarroako Museo Zerbitzuaren "Pasaportea, museatu! Eta bidaiatu" egitaraua martxan da beste aste batez. Hori dela eta, Karlismoaren Museoko erakusketa iraunkorra ezagutzeko bi bisita zabaldu dira larunbatean. Gainera, larunbat eta igandean Tuterako Katedraleko

Judizioaren Atean egiten ari deiren zaharberitze-lanak ezagutzeko aukera zabaldu da. Bukatzeko, igandean eskaintza hirukoitza egongo da Iruñeko Katedraleko Klaustroan egiten ari diren konpontze lanak bisitatzeko.

Kultura egitarauaren xehetasun guztiak [esteka honetan](#).